

**EUSKADIKO GAZTEAK LANKIDETZAN PROGRAMAKO GAZTEEI HARRERA
RECEPCIÓN JÓVENES PROGRAMA JUVENTUD VASCA COOPERANTE**

2024-06-18 Lehendakaritza 18-06-2024

Lehendakariaren hitzaldia- Discurso del Lehendakari

Arratsalde on guztioi eta ongi etorri Lehendakaritzara!

Dakizuenez, ekitaldi honetan 'Euskadiko Gazteak Lankidetzan' Programan parte hartzen duzuen gazteoi hegaldi-txartelak, bisak eta beharrezko dokumentazioa emango dizkizuegu, uda honetan lankidetzan- eta elkartasun-esperientzia garatu ahal izan dezazuen.

Zehazki, guztira, 67 gaztek –60 emakumek eta 7 gizonek– ia hiru hilabetez parte hartuko duzue "Euskadiko Gazteak Lankidetzan" programan.

Uztailaren 4tik aurrera, bederatzi herrialdeetara joango zarete bertako erakundeekin lankidetzan Euskadiko Gobernu Kanpoko Erakundeen proiektuetan boluntariora garatzera.

Herrialdeak hauek dira: Honduras, Peru, Ekuador, Mexiko, Guatemala, Bolivia eta Kolonia, Amerikan; eta Ginea Konakry eta Etiopia, Afrikan. Aurten Euskadiko Gobernu Kanpoko hamar Erakunde hartuko dute parte programan.

Lehendakari bezala, 2012an parte hartu nuen lehen ekitaldia hirugarren sektore sozialarekin izandako topaketa bat izan zen. Gaurkoa, Lehendakaritzan izango dudan azken ekitaldia izango da, Euskadiko Gazteak Lankidetzan Programarekin.

Hace once años y medio, el 27 de diciembre de 2012, en mi primera intervención en un acto público como Lehendakari, participé en un evento de Lantegi Batuak. Una iniciativa vinculada al tercer sector social de Euskadi y al desarrollo del compromiso de solidaridad mediante la colaboración público-social.

Hoy comparto con vosotras y vosotros este último acto público en Lehendakaritza. Ha sido un honor ser Lehendakari de Euskadi. Es un gran honor participar en este acto que pone en relación dos valores fundamentales para nuestro futuro: juventud y solidaridad.

Eskerrik asko hemen egoteagatik. Programa honetan parte hartzeak itxaropena pizten du etorkizunari begira.

Programa honek 31 urteko historia du. Urte hauetan 2.500 gaztek eta Gobernu Kanpoko 100 erakunde hartu dute parte.

Ziur naiz esperientzia hau oso aberasgarria eta baliagarria izango dela zuentzako.

Ez hori bakarrik, bizitza osorako gordetzen ditugun erreferentzia horietako bat izango da.

Horren lekuko dira aurreko edizioetan parte hartu duten lagunen testigantzak.

Me permito haceros tres sugerencias de cara a esta experiencia que vais a vivir. Se resumen en tres palabras: conciencia, humildad y gratuidad.

En primer lugar, conciencia. Aprovechad esta oportunidad para valorar y tomar conciencia de la realidad en que vivís. Una realidad que se llama Euskadi.

A veces no somos conscientes de lo que tenemos porque lo hemos tenido siempre y lo damos por descontado. No es así. Conocer la realidad de otros lugares nos ayuda a valorar mejor la nuestra.

Segundo. Os recomiendo que, a la hora de acercaros a la realidad de los países y las personas que vais a conocer, lo hagáis con toda humildad.

Es muy importante dejar de lado cualquier prejuicio de superioridad. En algunos aspectos es posible que descubramos que tenemos más para aprender que para enseñar.

Tercero, os animo a profundizar en la solidaridad. Os animo a vivir la solidaridad como experiencia de gratuidad. No solo como vivencia que nos hace sentirnos bien.

La solidaridad como entrega y desprendimiento a cambio de nada, a fondo perdido. Esta experiencia va más allá de lo que me reporta a mí como persona.

En el mundo en que vivimos no tenemos muchas ocasiones de desarrollar este tipo de vivencia de solidaridad directa. Esta es una buena ocasión.

Bidai-txartelekin batera, hiru hitz helaraziko dizkizuet: kontzientzia, apaltasuna eta doakotasuna.

Bat, gure herrian bizi dugun errealitatearen kontzientzia.

Bi, nagusitasun-aurreiritziak alde batera uzteko umiltasuna, eta

Hiru, doakotasuna itzuli beharrik gabeko elkartasun-esperientzia bizitzeko.

Programa honetan parte hartzen duzuen Gobernu Kanpoko erakundeei, Eusko Jaurlaritzaren izenean, gure esker ona adierazten dizuet. Ekimen honekin elkartasunaren pedagogiari eta gazteekiko konpromisoari zerbitzu handia ematen diozue.

Amaitzeko, programan parte hartuko duzuenoi zuen bizitzetan benetan bizipen ahaztezina izatea opa dizuet.

Bidai, esperientzia eta bizitza on denori! Bihotz bihotzez, eskerrik asko!